



AGENDA ALBISTEAK **ELKARRIZKETAK** AMUAK KOMUNITATEA IRAKURLE TALDEEN MAPA BIDEOAK
ARTXIBOA ▾

ELKARRIZKETAK

Hasiera » Elkarrizketak » Agustin Arrieta Urtizbereari elkarrizketa

Agustin Arrieta Urtizbereari elkarrizketa


"GIZA HARREMANAK, HORI DA *IRLAK* (EREIN) IPUIN LIBURUAREN ENBOR NAGUSIA"

Ostirala, 2016-02-12

"Fikzioak ikaragarriko menua eskaintzen du, jostun kutxa dirudi, eta, nire egoeraren arabera, hor ibili naiz bide hau edo bestea aukeratzen". Batzuk errealistagoak, besteak fantastikoagoak-edo, *Irlak* (Erein) liburuko ipuin gehienek eguneroko kontuak erretratatzen dituzte. Eta egunerokotasun horretan, gizakion portaerari buruzko zertzeladak ematen dira. **Agustin Arrieta Urtizberearen** idazketan bada nabarmentzen den beste joera bat: ipuinak irekiak dira. Irakurleak osatu beharko du artelana bere

interpretazioarekin, bere begiradarekin.





Batzuk errealistagoak, besteak fantastikoagoak edo, baina guztietan eguneroko kontuak erretratatzeko joera gailentzen da. Eta egunerokotasun horretan, gizakion portaerari buruzko zertzeladak ematen dira. Giza harremanetan ipini duzu begipuntua. Hori izan daiteke ipuin hauek guztiak lotzen dituen haria?

Bai, giza harremanak, hori da enbor nagusia. Baina esan beharra daukat nik ez neukala planifikatuta gai horren inguruko libururik idaztea. Ipuinak sortu dira banan-banan, denbora luzean zehar, motibazio eta xede desberdinen arabera. Bilduma osatutakoan, konturatu nintzen konexio horretaz, salbuespenak salbu. Hasieran ipuinak irlak ziren, independenteak. Gero, bilduma irlen sare bilakatu da, eta bakarren bat, akaso, isolatu samar geratu da. Azken buruan, giza harremanei buruzko koadro bilduma; kolore, tonu, tamaina eta estilo desberdinez osaturikoa.

Ez da toki jakinen izenik ematen. Pertsonaiak, gertaerak, landutako gaiak... nahikoa unibertsalak dira. Liburu honetan, zure jardunak ez du ‘txokokeritik’ezta?

Arrazoia duzu. Ipuinen iturri nagusia nire inguruko gertakizun arruntek eskaintzen badute ere, gertakizun horiek unibertsaletik edaten dutela uste dudanez, saiatu naiz, orokorrean mintzatuz, erreferentzia jakinak alboratzen. Beste kontu bat da izaera gutxi-asko unibertsal hori lortu dudanez edo ez. Gustatuko litzaidake jakitea nire ingurutik oso aparte bizi den jendeak zer nolako harrera egiten dien kontakizun horiei.

Gogora etortzen zaizkit Saramagoren *Itsutasunari buruzko saiakera* eta *Izen guztiak* izenburuko liburuak. Lehenengoan ez dago izen berezirik eta bigarreanean, liburuak izenburu hori badu ere, izen berezi bakarra agertzen da (oker ez banago). Dimentsio unibertsaleko narrazioak, noski. Eredu posible

bat.

Zertzelada batzuk margotu ditu artistak, baina irakurleak bere interpretazioekin borobilduko du koadroa. Ipuin hauetan ere, egoera batzuk irudikatu dituzu, baina amaiera jakin bat zehaztu gabe. Erretratuak eragin dion ziztada horrekin osatu beharko du irakurleak ipuina, ezta?

Horixe! Ipuin batzuetan bukaera argi samarra da, eta beste batzuetan, zuk diozun bezala, ez. Azkenekoen kasuan, arrazoi desberdinak daude hori hala izan dadin, baina nagusia hau da: etorkizuna irekita dago, eta labur garatutako pertsonaia horiek zenbait ibilbide dituzte aukeran. Nik neuk ere ez nuen batere garbi zein aukeratuko zuten. Irakurleak, nik neuk bezala, pentsa dezala etorkizun posibleetan! Baina horretarako, lehendik, lortu behar da kontakizunak irakurlearen interesa piztea. Hor dago koska! Bukaera irekia eraginkorra izan dadin, bukaerarako bidean asmatu behar da.

Ipuin askotan ez da ezer “apartekorik” gertatzen. Baina askok zer pentsatua ematen dute. Zentzu horretan asko eta asko ipuin irekiak direla esan daiteke.

Hori pentsatzen baduzu, ni pozik. Izan ere, “apartekorik” gertatzen ez bada ere, zer pentsatua ematen baldin badute, horrek esan nahi du eguneroko edo ohiko gertakizun horietan zama handiko auziak eta kezkek ezkutatzen direla. Nik hala uste dut.

Fantastikoak diren horiek ere kutsu errealista dute. Estilistikoki mugan daude. *Museoa* da horren adibide. *Museoan*, hain zuzen, fikzioaz ere egiten da hausnarketarik. Lurrazpiko hiri bat, zibilizazio bat irudikatzen da, non fikzioa museoko erakusgai bilakatu den. Ez da egungo egoera izango, baina badu loturarik gaur ematen ari diren fenomenoekin, ezta? Bada gurean dokumentalen loraldi

modukoa, eta akaso fikzioak galdu du garai batean zuen indarra?

Bai, *Museoa* ipuinak fantastikoa edo zientzia-fikziokoa izan nahi du eta, aldi berean, errealista edo gertukoa. Halako zientzia-fikzioa gustatzen zait. Ray Bradbury-ren *Marteko kronikak*, benetan Martekoak al dira?

Halaber, fikzioaren gaineko kezka agertzen da kontakizun horretan (eta beste pare batean ere bai). Beti galdetu eta galdetzen diot neure buruari zergatik behar ditugun istorioak edo fikzioa? Zein da fikzioaren eginkizuna gure bizitzan? Fenomeno unibertsala da, nonahi eta noiznahikoa, baita egoera gogorrenetan ere. Ipuin horretan, besteak beste, irudikatzen dut fikzioak indarra galdu duela, museoetan bakarrik dagoela. Mundu hitsa. Nik benetan uste dut fikzioa saihestezina dela, eta edozein zirrikitutatik edo atzeko atetik agertuko dela berriro. Fikzioak izugarritzko ahalmena duelakoan nago.

Kontuak kontu, fikzioaren gaineko kezka presente dago, zalantzarik gabe.

***Musean*, bezala, beste ipuin askotan ere dialogo gutxi dago. Deskripzio ugari. Ustez ohikoak diren egoeretan ere badira oharkabeen pasa daitezkeen ertzak. Zuk ertz horietan erreparatu nahi izan duzu akaso?**

Dialogoak erabiliz, narratzailearen ikuspuntua aldatzen da zeharo. Nire kasuan, eta narrazio labur hauetan, badut joera kanpo narratzaile behatzaile bat jartzeko eta horrek eragiten du dialogoak gutxitzea. Narrazio hauek laburrak direnez, dialogoaren kalterako da ohiko egoerei zukua atera nahi eta behar izatea. Dena den, nire aurreko liburuarekin alderatuta, elkarrizketek presentzia handiagoa izan dute liburu honetan. Baliabide narratiboen erabileraren aldetik, zer edo zer ikasi dut, eta ikasteko asko daukat.

Muturreko egoera bat azaltzen da *Irlak* ipuinean. Gaixotasun misterioitsu baten ondorioz, eri daudenak edo egon daitezkeenak irla batera eramaten dituzte, beharturik eraman ere. Zika fenomenoarekin akordatu daiteke bat. Nola jokatuko ote genukeen horrelako egoera baten aurrean. Gutako bakoitzaren elkartasun maila nolakoa izango ote zen.

Ipuin horretan sentimendu eta harreman positiboak sentiarazi nahi nituen, egoera eta baldintzak zeharo kontrakoak izanik ere. Idazten ari nintzen bitartean pertsonaien arteko adiskidetasuna eta elkartasuna sentitu nituen. Gustatuko litzaidake irakurleak hori partekatzea.

Beste ipuinekin alderatuta, *Irlak* izenekoa kontrako noranzkoan doa: egoera ezin zailagoa da, baina enpatia eta sentimendu onak nagusitzen dira. Beste kontakizun askotan, egoera ustez ohikoa da, ustez zailtasun handirik gabekoa da, eta halere mehatxua, elkartasun eza edo maltzurkeria hor daude, nagusi dira nolabait esatearren.



Kuadrilla kontuak

Kuadrilla maiz agertzen da zure ipuinetan. Eta kuadrilaren ingurukoak. Babesgune izan daiteke, baina baita infernu txiki ere. *Jaiak* ipuina izan daiteke horren adibide?

Bat nator zure deskripzioarekin. Ipuin horretan ideia batzuk daude, baina nagusia zuk aipatutakoa da. Igor protagonistak seguru asko galdera handi bat egingo dio bere buruari: eta lanera joan behar ez banu, non egongo nintzateke? Kuadrillakoekin? Eta orduan zer? Behin arrazakeriaren gaineko pelikula ikusten ari ginela (badakizu, AEBetako Hego Aldea, beltzak, KKK, zuri onen bat,...), aldamenekoak galdetu zidan, han jaio izan bagina, eta zuriak bagina, zer egingo genukeen, non izango ginatekeen pelikula honetan, ze taldetan? Horrelako galderak inplizituki behin baino gehiagotan agertzen dira liburuan zehar, baita *Jaiak* izeneko ipuinean ere.

Kuadrillaz ari garela, *Kuadrillakoak* (azken ipuina) da akaso ipuin guztietan diferenteena. Gurean bizi izan den gatazkari lotzeko heldulekuak ditu. Akaso hau izango zen borobiltzeko ipuin zailena?

Hau da erreferentzia zehatzenak dituen, eta akaso Euskal Herritik kanpo ulertzerik ez dagoena. Ez dakit. Ipuin guztietan oroimenak garrantzia dauka, baina honetan gehiago. Alde horietatik desberdina da ipuin hau. Gogora ekarri nahi izan dut, fikzio labur batez baliatuz, nik zuzen-zuzenean ezagutu nuen mundu hura denbora tarte luze eta zehatz bati erreferentzia eginez, herri eta kale zehatz batzuei erreferentzia eginez.

Ipuinaren egiturari dagokionez, denboran atzera eta aurrera ibiltzea erabaki nuen, irakurlea harrapatzeko eta tramari zama erantsia atxikitzeko teknika eraginkorra zelakoan. Aurreko galderan aipatutako auziak berriro agertzen dira. Kuadrilla, noski, eta haren baitan egin daitezkeen aukeren menua. Ni non? Zergatik hemen, eta ez han? Giro eta garai bortitz hartan, kuadrillak eztanda egin zezakeen, eta bertatik denetik atera. Aukeren abanikoa oso zabala da, eta aukeren artean, ez gutxi tragikoak dira. Besteak beste, hildakoak, honengatik edo hargatik, oso gazteak, oso gertukoak. Batzuei urrutiko mundua irudituko zaie, baina “atzokoa” da, eta hemen dago.



Interpretazioaren auzia

Komunikazioa-inkomunikazioa bada giza harremanen ohiko ezaugarria. Besteak beste, guraso eta seme alaben artekoa. 1 Formula izeneko ipuinean, adibidez.

Komunikazio, inkomunikazioa. Horri guztiari *interpretazioaren auzia* deituko nioke. Bizitza osoa ematen dugu gure ingurua eta gure inguruan daudenak interpretatzen, baita nor bere burua ere. *Zentzua* eman nahi diogu aurrez aurre dagoenari, ulertu nahi dugu. Ze erremedio! Hala eta guztiz ere, ze zaila den asmatzea besteen buruan zer dagoen, gertukoak izan arren! Besteak beste, belaunaldien arteko komunikazio zailtasunak, etxe berean bizi badira ere. Horretaz doa *1 Formula*. Beste ertz edo alderdi batetik heltzen diot auzi horri *Begiluzea* ipuinean.





Zahartzaroz ere badira hainbat ipuin. *Urtebetetzea* bera, oso paradoxikoa da. Zaintzaile dena gaixo agertuko da gero. Hemen ere ageri da komunikazioa-inkomunikazioaren joko hori, ezta?

Bai, berriro auzi hori, eta zahartzaroa, eta zaintza. Kontatzen den istorioaz gainera, omenalditxoa da kontakizun hau. Harrigarria da pertsona batzuek besteen alde zenbat eman dezaketen. Zeren truke? Arazoa da ez dela truke kontua, beste “logika” bat da. Kontakizun horretan adierazten da zenbateraino edo noraino iritsi daitekeen “zaintzailea”. *Txostena* izeneko ipuinean ere, beste ikuspuntu eta estilo batetik, gai horretaz mintzatzen naiz.



"Trenek aukera asko ematen dituzte"


Ohiko egoerak irudikatzen dituzu ipuinetan. Egunerokotasunari loturikoak. Ohikoak diren egoeretan, ordea, maiz oso ulertezinak diren portaerak izaten ditugu. *Irten, ez irten* ipuinekoa adibidez.

Trenek aukera asko ematen dituzte, eta liburuan askotan agertzen dira. Aipatzen duzun ipuinean, trena da ohiko egoeraren edo egunerokoaren irudia. Baina badago pertsona bat zalantzatia dena, ez dago oso garbi zer nahi duen, agian egunerokoari aurre egin nahi al dio? Beste behin irakurleak osatu behar du koadroa. Nik neuk ere era desberdinetara osatu izan dut.

Esan dugu: ipuinetan ez dago gailentzen den estilo jakin bat (fantastikoak ez dira guztiz fantastikoak). Eta neurri aldetik ere oparoa da. Badira laburrak diren hainbat ipuin ere. Nola antolatzen da ordea, hain lan oparoa? 34 ipuinen puzzlea osatzeak burukomin handia eman al dizu?

Hasieran adierazi dudana bezala, ipuinak ez dira plangintza bati atxikita sortuak izan, denbora luzean banan-bana baizik, modu independentean. Gero, arazo nagusia izan da ipuin batzuk kentzea, eta horretan laguntza izan dut, editorea, aldameneko irakurleak,... Ipuin hori oso bestelakoa da, ken ezazu! Ipuin hori txarra da, ken ezazu!... Kentzea izan da lan nagusia, eta gero ordenatu. Hor ere aukera batzuk izan dira esku artean. Eta izenburua, eta abarrekoak. Baina ez dira buruko min handiak izan.

Nik batez ere askatasun handia izan dut, loturarik ez, ez estiloaren aldetik ez luzeraren aldetik. Fikzioak ikaragarriko menua eskaintzen du, jostun kutxa dirudi, eta, nire egoeraren arabera, hor ibili naiz bide hau edo bestea aukeratzen.



Utzi zure iruzkina






"Hegoak _____ banizkio, nirea izango zen" (derrigorrezkoa, spam-aren kontra)

Idatzi zure iruzkina


Iruzkina bidali



“ Nik benetan
uste dut
fikzioa saihestezina
dela, eta edozein
zirrikitutatik edo
atzeko atetik
agertuko dela
berriro




“ Bukaera irekia
eraginkorra
izan dadin,
ipuina ren
bukaerarako bidean
asmatu behar da





“ Nik batez ere askatasun handia izan dut: loturarik ez, ez estiloaren aldetik ez luzeraren aldetik



“ Giza harremani buruzko koadro bilduma bilakatu da liburua; kolore, tonu, tamaina eta estilo desberdinez osaturikoa

HARREMANETARAKO

Oier Guillan & Danele Sarriugarte & Imanol Ubeda

hitzenuberan@gmail.com

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia

NOR GARA • EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA

HARREMANETARAKO